


2010-2011 IKASTURTEA



ARDURADUNA: Kultura Saila

PARTAIDEAK: Urdaneta Ikastetxea, Jakintza Ikastola, Barrena KE-ko plastika tailerrak, Ordizian Merkatari Elkarte, Liburutegia (ipuin kontaketa tailerra).

DATA: Martxo

HELBURUAK:

- Ahozkotasuna bultzatzea.
- Sormena lantzea
- Hitzaren bidez hango eta hemengo bizipen, historia, tradizio, literatura eta kanten berri ematea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Eskuz esku programa (tailerrak), ahozkotasuna lantzeko ikastaroa, jaialdia, ipuin-poteoa, ipuin kontaketa, kaleen eta erakusleihen apainketa...

BALIABIDEAK:

Ekimenaren araberakoak:

- Ipuin kontaketa aritu diren 2 pertsona.
- Astean 2 ordu.
- Ikastolako aretoa.

BALORAZIOA:

Ikasleek primerako aukera izan zuten jendaurrean eta ahoz kontakizun bat azaltzen ikasteko. Horren lekuko izan zen Herri Antzokian eskainitako jaialdia.

Ikasleen balorazioa oso ona izan zen eta gustura hartu zuten parte.

Ikusleen artean guraso ugari izan ziren. Herritarren aldetik parte hartze txikia.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Hurrengo urterako egokia litzateke prestakuntza maila oso bati eskaintzea.

OHARRAK:

2011-2012 IKASTURTEA



ARDURADUNA: Kultura Arloa

PARTAIDEAK: Goierriko Bertso Eskola (GoiBE), Jakintza Ikastola, Kultura Arloa, Ordiziako Udal Liburutegia, Urdaneta Ikastetxea.

DATA: martxoaren 9-18

HELBURUAK:

- Ahozkotasuna bultzatzea.
- Sormena lantzea.
- Hitzaren bidez hango eta hemengo bizipen, historia, tradizio, literatura eta abestien berri ezagutzera ematea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Eskuz-esku programa (tailerrak), ahozkotasun ikastaroa, jaialdia, ipuin-poteoa, ipuin kontaketa, kaleen eta eskaparateen apainketa...

BALIABIDEAK:

Ikastolako aretoa, gainontzeko baliabideak antolatzaileek ekarri zituzten.

BALORAZIOA:

GoiBE: Oso egokia. Ipuin kontalari errioxar talde batekin eta Euskal Herriko beste birekin batera aritu ziren. Entzuleen artean haur asko eta gustura entzun zituzten bertsoak.

“Ahoz aho” jaialdiaren barruan kokatu beharko litzateke ekintza eta bertsolariak jakin izan zuten, bai aurretik entzundako ipuinen harira bertsoak kantatzera eta baita garai batean ahoz ahoko transmisioak izan zuen garrantziaren berri adieraztea bertso bidez.

Herriko 3 txokotan egin zuten kantuan (Martinez, Txindoki eta Olano), bai taberna barruan nahiz kanpoan. Entzuten hari ziren haurrek “majo” kantatzen zituzten bertso amaierako errepikapenak.

Jakintza Ikastola: Horrelako jarduerak egitea positiboa iruditzen zaigu. Azkeneko emaitzak ere politak izan dira. Zenbaitetan ikasleen portaera oso egokia izan ez bada ere, gustura ibili direla esan dezakegu. Jendeaurreko saioak asko motibatzen ditu.

Kultura Arloa: Oso ona. Argentina, Kolonbia, Senegal, Errioxa eta Euskal Herriko ipuin-kontalari, narratzaile eta hizlariak gurekin partekatu zuten hitzarenganako grina, eta narrazio, istorio, ipuin, esaera eta abenturen oihartzuna utzi zuten geure kalabazen barruan. Batzuk benetakoak ziren, beste batzuk irudikatuak, haurtzarotik erreskatatuak, herriaren tradiziokoak...

Hainbat enbaxadorek bisitatu gintuzten: Gonzo Velazko, Laura Dippolito eta Sasa Guadalupe argentinarrak, Jhon Ardila kolonbiarra, Falilou Diagne senegaldarra, La Compañía del Saco Errioxatik, eta, Euskal Herriatik, Metrokoadroka, Itziar Rekalde, Joxe Mari Carrere, Apika, Alabazan, Ginars (Bonbereneako Afrikar Dantza Taldea), Badut, Kontukantoi, Enekora, Irantzu Mantso, Ione Gorostarzu, Pailaztana Clown Taldea, Urrup Antzerki Taldea, Jakintza Ikastola, Urdaneta Ikastetxea eta Goierriko Bertso-Eskola.

Daukaten gauzarik onena eman ziguten. HITZA eman ziguten.

Urdaneta Ikastetxea: Ekintza egokia da. Egindako lana erabili dugu gaia lantzeko eta eskola apaintzeko.

Ikasleak oso gustura ibili dira, baina irakasleak ez hainbeste. Garaia ez da oso egokia izan ekintza gehiegi izan dugulako hilabete honetan.

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK:

GoiBe: Adin horretako jendearentzat gaztelaniazko saioak soberan zeuden, askok ez baitzituzten ulertu ere egin.

Jakintza Ikastola: Esan bezala horrelako ekintzak positiboak dira, baina gure iritziz hobekuntza batzuk egin daitezke jarduera denon gustukoa izan dadin.

- Urtero antolatu behar den jarduera bat izan behar badu, datak aurrez jakitea oso aproposa litzateke, taldeak era egokian antolatzeko, baliabideak pronto izateko eta gure eguneroko jardunean hobeto txertatzeko.
- Antolatzeko garaian ere gurekin kontaktzea gustatuko litzaziguke, ahal den neurrian behintzat, ondoren guk, egiten den horri, zentzua emateko. Adibidez iazko jarduera egiteko, kalabazak egitea, eskulanetako orduak erabili genituean eta zentzu bat eman genion proposatutakoari. Aurteangoan, bai, argazkiak egin ditugu eta politak gelditu dira, baina ikasleek partaidetza eskasa izan dute ekintza horretan. Horretaz gain denboraz oso eskas ibili gara eta korrika eta presaka egin ditugu.
- Bestalde, egokia iruditzen zaigu ikasleek horrelako formakuntza jasotzea, baina egokia litzateke urtero maila oso batek jasotzea eta irakasleak ere beraiekin batera, gero saio horietan ikasten dutena jarraipen bat izan dezan gelan, ahozkotatua lantzeko garaian.

Urdaneta Ikastetxea:

- Aurretik programatu behar da eta Eskolako Urteko Planean sartu.
- Ekintza honen datak lehenbailehen jakitea komeni da.

OHARRAK:

Saioa 18:00etan egitekoak ziren baina azkenean 18:45ean egin da, egitarauan ordena aldatzea erabaki delako.

<http://urdaneta.ikastetxea.net/files/UOE201143.pdf>

<http://urdaneta.ikastetxea.net/files/UOE201146.pdf>

2012-2013 IKASTURTEA



HELBURUAK:

Komunikazioaren belaunaldia deitzen dugun honetan, erabat paradoxikoa da ezer gutxi sustatzen dela mintzairaren trebakuntzan, hain zuzen, komunikazio eta harremanen funtsa dena. Eskuera ditugu hamaika baliabide edozein motatako informazioa jasotzeko, eta horretarako trebatzen ditugu haurrak heziketaren lehen urratsetatik. Haurrek eta gazteek jaio orduko ikus-entzunezko tresnak ezagutzen dituzte eta erabiltzen inolako arazorik gabe ikasten dute. Baina, jasotzen duten informazio guzti hori, harreman zuzena eta naturala izan behar dutenei modu egokian transmititzen irakasten diegu?

Mintzoaren alde, adiarazmenaren alde, ezer gutxi egiten dela esango nuke nik; edozein erregistratzen, edozein eremun, edozein solaskiden aurrean nahi dugun guztia eta modu egokian adierazteko gaitasuna emango digun trebakuntzaren alde.

Ipuinak dira horretarako baliabiderik onenetarikoak, hain zuzen, ahozko hizkuntzaren elementu diskurtsibo guztiak barruan dituztelako.

Tamalez, ipuinak haurtzarorako bakarrik direla oso sustraituta dago gure gizartean eta, are gehiago, haurtzarotik ihes egin nahi duten gazteentzat. Ekintza honen bidez aurre iritzi hori apurtu, eta ipuinen eta ahozko narrazioarekiko nahia eta zaletasuna berreskuratu nahi da, ahozko transmisioaren katea eten ez dadin hitzunen komunitatea sendotu ahal izateko.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Eredu bezala ipuin tradizionalak hartu ditugu berauen morfologia lantzeko. Ipuina aukeratu, egiturak banatu, aztertu eta berregin, taldekide bakoitzak muina ondo ulertu arte.

Ondoren, taldeak proposaturiko gaiak, pertsonaiak eta ibilbideak hartu ditugu ipuin berri bat asmatu arte.

Hirugarrenez, jarrera eta erritmo ezkenikoari ekin diogu, emanaldia prestatzeko.

Horretarako ordu beteko 6 saio egin ditugu ikastetxe bakoitzean 3. Zikloko ikasleekin, joko eta ariketen bidez arlo hauek landuz:

- Arreta
- Irudimena
- Hizkuntza eta ahozko azalpena
- Ahozko teknikak eta adierazmena

- Erritmoa

BALORAZIOA:

Oso baikorra ikasleen parte-hartze guztiz emankorragatik

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Ordu beteko saioak motzak gelditzen dira talde dinamika egokia sustatzeko. Nik, gutxienez, bi ordukoak proposatuko nituzke

2014-2015 IKASTURTEA



ARDURADUNA: IÑAKI HIDALGO (Kultura teknikaria) + (INTUJAI TEATRO)

PARTAIDEAK:

Partaideen kopurua tailerretan: 20 Gizonezkoak %45 Emakumezkoak %55

Hartzailearen adina: Haurrak(0-12) Nerabeak(13-18) Gazteak(19-40) Helduak(40-60) Nagusiak(+60) (*)

DATA:2015ko Martxoaren 7tik - Martxoaren 20ra

HELBURUAK:

Ahokotasunaren garrantzia sustatu eta zabaldu. Kultura ezberdinak ezagutu.

Artisten harremanak indartu. Formakuntza...

Landuko diren balioak: Berdintasuna, aniztasuna, ekologia, elkarbizitza...

(Ipuinekin beti balio guztiak lantzen ari dira...)

Kultura desberdinak, mundu ikuskera desberdinak, jarri nahi dira aurrez aurre, mendean hartu nahi gaituen kultur globalizazioari ihes eginez. Elkar ezagutzea da helburua, harremanak ezartzea eta areagotzen ari den mestizaje aberasgarria onartzea, bakoitzak bere izateari eutsiz. Hainbat estilo eta hainbat forma, gure mundu anitz, mestizo eta kultura askotarikoaren erakusgarri.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Ipuin ikuskizunak, Ahokotasunaren ikastaro bat, narrazio Lehiaketa bat eta Gala Nagusia egitaraua osatzen dute, besteak beste.

METODOLOGIA:

Ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

INTUJAI TEATRO eta Ordiziako Kultur Saila bilera periodikoak eta e-mailen bidez forma ematen dute egitarauari eta ebaluatzen dute ekintza guztiak. Jaialdiaren egunetan egunero hitz egiten dute AHOZ-AHO Jaialdiari jarraipena emateko.

Tailerretan Beatriz Egizabal ipuin kontalaria izan da.

BALIABIDEAK:

BARRENA JAUREGIko ARETO NAGUSIA + Ikastetxeetako gelak + Goiztiri AEKako gelak.

BALORAZIOA:

OSO POSITIBOA. Urdaneta Ikastetxea eta Jakintza Ikastolaren harrera ezin hobea izan da. Etorri diren artisten horrela azaldu dute. Haurrek errespetu handiz izan dira eta nabaritzen da ahozkotasuna lantzen dela.

Ekintzak finkatzen ari dira eta azken urteetan publikoaren erantzuna ona izan da.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

OHARRAK

(*) Hartzailearen adina: 4 saio eta ikastaroa eskoletako haurrentzat, beste ekintza guztiak publiko familiarrantzat.